



MUSIKA

Sabeletik eta burutik



GARUN TA EZTARRI BANANAS

HAINBAT DISKOETXE, 2021

IKER BARANDIARAN

Pasa dira makina bat urte ordutik: Bergarako Kartzela Zaharrean – Gaztetxean- bi musika taldek itzelezko emanaldia eskaini zuten hardcorea oinarri; gau gogoangarria izan zen, ederra. Bada, kontzertu ostean bi taldeetako kideen arteko elkarrizketa, pozarren, hauxe: “Nolatan jarri diozue Flyshit izena taldeari?”, batek. “Eta zuek, Spermbirds?”, besteak. Zozoak beleari ipurbeltz. Izen xeledredunak biak ala biak, baina hamarkadak pasata sasoi betean jarraitu eta gero eta gehiago post-hardcorean arakatu eta eroso mugitzen direnak.

Bananas ere izen xelebrea da erabat, baina Musikazuzeneaneko lagunei kasu eginez asteen eskuratu dut diskoa, eta a ze sorpresa ederra! Ezer gutxi dakit

oraindik disko luze hau aurkeztu berri duten taldekideez (aurretik lan laburrago bat kaleratu zutela, hain justu), baina mimoz eta gogoz lantzen dute emaitza.

Diskoa zabaltzen duen *Beste behin*-ek ezinbestez ekarri dit Rites Of Spring gogora: malenkonia sarkor bezain indartsua, post-hardcorearen esentzia. *Zenbaterainor*-ek emo-an murgilduta pentsarazten dit noraino helduko den abeslariaren ahotsa: kantu honek (eta gainontzekoek) bietatik baitu, itsaskorretik eta garratzetik. *Zaldi beltz* batek baditu riff gardenak eta Dut taldeko Josebaren pareko urgutzia. *Bideharri*, melodia beti aldarri, tempo eta erritmo aldagarri da, aberatsa. *Zama* are eta jostalariagoa, instrumental jokoak gehiago

eta gehiago nabarmenduta eta Lisabö gogoan. *Ulia*-k darama aldean Leatherface handien *Dead industrial atmosphere* gaurkotuaren arima. *Lehen buru gerra* da, apokalipsiaren aurretik, pop-etik gogoz edaten duen eta ostean rockero bilakatzen den pieza ederra. Eta, azkenik, *Kontra edo alde* da, ezbairik gabe, erritmo biziz jantzitako pop garraztua.

Bananaseko kideek jakin dute irmotasuna, erritmo aberatsak, melodia barra-barra, gainetik kendu ezin (ezta nahi) dugun malenkonia pizgarria, irudimena, garraztasuna, urgutzia eta indarra batzen, kontrastez beteriko emaitza aberatsean. Izan ere, eskola zaharreko post-hardcorearen esentzia dauka puripurian, eta are kolore gehiagoz zipriztinduta. ●